

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Gure bezero gehienak ingurumenarekiko kontzientzia duten pertsonak izango dira, eta maila sozioekonomiko ertain edo altua dutenak (esaterako, praka bategatik 70 euro ordaintzeko prest dagoena). Gehienak emakumezkoak izango dira, 30 eta 60 arteko adina dutenak

Denda Durangon kokatuko dugu, Montebideo kalean hain zuzen, bertan libre dagoen lokal batean. Izan ere, kale horretatik jende asko pasatzen da egunean zehar eta horrek abantailak ekartzen dizkigu, denda jendearen bistan dagoelako..

Ahalik eta bezero gehienek ikusiko duten lekua da, horra hor produktu bat jartzeko lekurik onena. Enpresa berriz, lurretako industria aldean kokatuko dugu.

Aipatu beharra dago, gure enpresa multinazional batekin alderatuz, desberdintasunak badituela, hala nola, diseinua eskusiboa da, eta bezeroaren gustura eginda dago. Izan ere, multinazionalak masiboki ekoizten dute, guk berriz, lehen aipatu bezala, gure produktuak eskusiboak eta bakoitzaren gustura egokituta daude.

HERRIA	BIZTANLE KOPURUA	30-60 URTEKOAK (gure bezeroak)		%
Durango	30.000	18.348	9.000	% 47
Elorrio	7.350	4365	2.000	% 10.4
Iurreta	3.662	2706	800	% 4
Berriz	4.695	2.588	900	% 4.7
Zornotza	19.546	11.403	5.000	% 26
Abadiño	7.658	4.482	1.000	% 5.2
Zaldibar	3.045	1.769	400	% 2

